

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**HONDARRIBIA 25**



**Egile eta data ezezagunak**  
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

**Deskribapena.**

Kantoiko eraikina, behe oina eta lau goi oin dituen. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan zurezko begiratokia duena hirugarren oinera arte. Laugarren oineko kantoiko begiratokia eta Alfontso VIII.aren kalera ematen duen fatxadako ezker aldeko baoan aurrez zeudenak kendu egin dituzte, eta horren aztarna hauteman daiteke bao horietako apaingarrien gabezia eta molduren etenean. Apaingarriei, sekzioari, eta abar dagokionez, bat dator Hondarribia 27rekin eta 29rekin (hortaz, Luis Elizalderen 1904 inguruko proiektua izan daiteke).

**Babes erregimena.**

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitu dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: begiratokiak (albo batekoak eta alakakoak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

\* Kendutako begiratokien (alboetakoak eta alakakoak) tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.

\* Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira gainerako irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen (Alfontso VIII.aren kalera ematen dutenena ere bai) konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.